



## San Migel eliza (Iurreta)

San Migel elizaren eraikina bi elementu desberdinen gehiketarik sortu zen, elementu horiek garai desberdinetakoak dira. Etengabeko auziek Iurretako eliza apala, zinetan Joseph de Zuaznabarrek 1748an dorre barroko bat eraiki baitzuen oztopatu zuten bere eraberritzea XIX. mendearen hasierak arte.

1800 urtearen hasieran, Gipuzkoako Alexo de Miranda, Akademiako arkitektoa, aurreko dorre ikusgarriari eutsi behar zion proiektuaz arduratu zen eta 1815ean ekingo zion hori. Diseinua, Miranda beste batzuetan erabili zuen sistema zentratutik urrundu, bere arte-biografian berrikuntza bat da.

Zorrotza bere itxura neoklasikoetan eta oso pentsatua, jadanik zegoen dorrearen arazoa konpontzeko modulu karratuen bidez, San Migel elizatearen erdigunean daukan hiriko kutsuagatik nabarmentzen da.

### Eraikina

Plantari dagokionez, San Migel lauki baten gainean jarritako gurutze grekoaren erakoa da, eta lauki hori errektangulo handiago baten menpe dago. Exedraz bukatzen den burualdea dago aurrez aur, eta alboetan bi gela daude. Oinean ere badaude, baina errektangularrak sakonera gutxiagokoak baitira. Atzeko aldeko garapena txikiagoa izateak eraikinaren simetria pixka bat hausten du, bestelako kasuetan oso handia, ordea. Bolumenak, nabariak, kanpoaldetik batez ere, planteamendu horrekin bat datoz, hots, bestearen gaineko markatutako gurutzearekin.

Sekzio karratuko lau pilek zatiak eta nabeak zehazten dituzte, euskarri horiekin hormetako irtenune gutxiko pilastrak bat datoz. Batzuek zein besteek kapitalak dituzte - plaka soileko inposta, gero eraikinaren ingurune osotik zabaltzen dena. Pilareak eta inpostak, urre koloreko hareharri landuak, eraikuntzako beste elementuen aldean nabarmentzen dira, eraikina enluzituta dago barrutik eta harri-horma kanpotik. Norabide bietan puntu-erdiko arkuek eusten diete gangen hasierako zatiei, denak dira ertz-gangak, gurutzearen besoetakoak eta burukoak izan ezik, burualdean kanoiak iraultzen dira.



Tenploko argia termal motako leiho batzuetatik sartzen da, leihoak erdizirkularrak dira, eta bi mainel dituzte. Sarbidedatik erabil daitekeena da interesatzen zaiguna, dintelduna eta atarira zabalik plaza aldetik.

Oinetan koru altua dago, orain dela gutxi eraberritua. Hasiera batean zati bat baino ez zuen ukitzen, baina aurrerantz joan da erdialdean eta alboetan, tribuna izugarri handiak sortuz.

Eguerdiko alderan eta oinetan atari baxua dago eta eraikuntzaren alderdirik interesgarrienetako bat da bere edertasuna eta funtzionalitateagatik. Puntu-erdiko arkuen segida da, erdikoa plazara begira, eta ez da besteetatik bereizten ia gainean duen burualdetxo klasikoarengatik. Teilape xumea dauka estalpe gisa.

Dorrea, oinetan jarrita, dorre-atariren euskal ereduakoa da, eta hareharri landuzko fustea da, gainjarritako eta moldurek banatutako hiru zatik modulatuak. Mastak kanpandorrearen oinarria izateko balio du, eta pixka bat oktagonala da. Linternaz azkendutako kupulaz gehi kupula txikiak eta bere haize-orratzaz estalia.

Kalostra nabarmentzen da, harrizko karela kanpai-gelaren defentsarako, eta apainketa: flamerok otxaboetan eta pinakuluak kupuladun eta linternadun erlaitzetan. Bere korridorera sartzeko atean hauxe irakurtzen da: 1748. Lerdentasuna ere nabarmentzekoa da, sentzazio hori lortu da ertzekoak fustean egoki jarri baitira.

### Barrualdea

San Migel elizan gaur zaintzen diren piezek ia ez dute garrantzirik, etzanda dagoen 1600 urte inguruko Kristo batek izan ezik, erromanista estilokoa, eta Aste Santuan pausogisa erabiltzen dute. Imajina hori Bizkaian gordetzen direnen artean zaharrena eta kalitate handienekoa da. XVI. mendearen erdialdeko Gurutze bat ere gailentzen da, anatomia gihartsukoa da.

**Testua:** José Ángel Barrio Loza.



### San Migel eliza

Iurreta. (*San Migel plazan*).

#### Nola heldu:

A-8 autobideak Durangon duen irteeratik, Donostiarako bidea hartu N-634 errepide zaharretik. Kilometro batera, norabide aldaketa eginda, Iurretako elizara hel gaitzke.

#### Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(*Iurreta*)

- Goikola Jauregia (udaletxea).
- Abadetxea.
- Olabe Nagusia baserria.